



**Aniztasuneko II Foru Plana
Eskubide Berdintasuna**

Aniztasunetik eraikiz

**Giza Eskubideetako eta Kultura
Demokratikoko Zuzendaritza**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro



1948. urtean Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zuen. Adierazpen horrek pertsona guztien berdintasuna goraipatzen du. Gure mundu modernoan hainbat hobekuntza izan dira pertsona guztien berdintasunaren alde, esparru ugarian: legerian, gizartean eta ekonomian. Hala ere, badira gure lurraldean ere, pertsonen duintasunaren kontrako jarrerak. Horrela gertatzen da pertsona hainbat arrazoiengatik diskriminatzen dugunean: jatorria, etnia, kultura, erlijioa, genero identitatea edo sexu orientazioa, ideologia, hizkuntza edo gaitasunak, adibidez.

Nola eraiki orduan giza eskubideetan oinarritutako eta kohesio soziala helburu duen Gipuzkoa berdinago eta bazterkeriarik gabekoa?

Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasuna bultzatzeko apustu sendoa egin du lurraldean eta uste du diskriminazio eza izan behar dela gizartea kohesionatzeko eta bizikidetzara bultzatzeko giltzarria eta funtsezko euskarria. Aniztasunaren kudeaketa positiboa egin nahi du. Hau da, aniztasuna balioan jarri eta aniztasun horrek ez duela diskriminazioa eragiten bermatu.

Ikastetxeetan ere aniztasun hori bermatzeko lana etengabea da eta hori indartzeko asmoz, osagarria izan daitekeen “Aniztasunetik eraikiz” proposamena sortu du. “Aniztasunetik eraikiz” proposamena hiru ikasturteko proposamena da. DBH2n hasiko dira ikasleak gaia lantzen eta DBH4n amaituko dute. Hiru ikasturte horietan, giza eskubideak oinarritzat hartuta, inguruko aniztasunera gerturatuko dira, bertan ematen diren diskriminazio egoerak identifikatuko dituzte eta horien aurrean begiak itxi beharrean, eraldaketarako proposamenak landuko dituzte.

Diskriminazio egoera horiek ezagutzeko biderik egokiena da diskriminazio egoera horiek jasaten dituzten pertsonen ahotik entzutea. Beraz, pertsona horiek izango dira proposamen horren muina. Beren testigantzak entzun eta beren egoera barneratu ondoren, ikasleek giza eskubideen aldeko eta diskriminazioaren aurkako konpromisoa gauzatzea bilatuko da. Errealitatearen behatzaile pasibo izatetik eraldaketaren protagonista izatera pasako dira ikasleak.

Aniztasunetik eraikiz

04. Orr. Proposamenaren aurkezpena

06. Orr. Kronograma



09. Orr. Aztertu



18. Orr. Sentitu



22. Orr. Konprometitu



26. Orr. Eranskinak



Hiru ikasturteko proposamenaren aurkezpena

Ikasturte bakoitzean lan-ildo batean jarriko da fokua (aniztasuna, giza eskubideak eta gorroto mezuak) eta gaitasun bat landuko da nagusiki (enpatia, parte-hartzea eta sormena). Lanerako metodologia aldetik hiru atal bereziko dira (aztertu, sentitu eta konprometitu).

Helburu orokorra

Ikasleek beren inguruan bizi duten aniztasuna ezagutu eta balioan jarri dezatela guztiontzat giza eskubideak aldarrikatzeko pausoak emanez gertuko eragileekin elkarlanean.

LAN-ILDOAK ETA IKASTURTEA	ATALAK	HELBURUAK	METODOLOGIA
LEHEN IKASTURTEA (DBH2) ANIZTASUNA ETA ENPATIA	Aztertu	Aniztasunaren esanahia ulertzea.	Dinamikak, bideoak, solasaldiak....
	Sentitu	Diskriminazio egoerak bizi dituzten pertsonen sentipenak ezagutzea eta barneratzea.	Testigantzak eramatea gelara beren bizipenak kontatzera.
	Konprometitu	Herriko aniztasunaz jabetzea eta balioan jartzea.	Ikastetxeko eta herriko aniztasuna islatzen duten edukiak sortzea eta zabaltzea.
BIGARREN IKASTURTEA (DBH3) GIZA ESKUBIDEAK ETA PARTE-HARTZEA	Aztertu	Giza eskubideen inguruko hausnarketa sustatzea.	Dinamikak, bideoak, solasaldiak....
	Sentitu	Giza eskubideen alde lana egitearen beharraz jabetu eta nola egin daitekeen ezagutzea.	Elkarteak eramatea gelara giza eskubideen ikuspegitik beren lanaz eta motibazioez hitz egiteko
	Konprometitu	Giza eskubideen alde lan egitearen esperientzia bizitzea.	Sentsibilizazio ekintzaren bat garatzea herrian elkarteren batekin elkarlanean.
HIRUGARREN IKASTURTEA (DBH4) GORROTO MEZUAK ETA SORMENA	Aztertu	Diskriminazioa eta gorrotoa sortzen duten mezuen aurrean jarrera kritikoa lantzea.	Komunikabideetan, sare sozialetan... gorrotoa sortzen duten mezuak identifikatzea eta aztertea.
	Sentitu	Giza eskubideen alde lana egitearen beharraz jabetu eta nola egin daitekeen ezagutzea.	Giza eskubideen alde lan egiteagatik ondorio kaltegarriak jasan dituen pertsonaren bat gelara eramatea.
	Konprometitu	Aniztasunaren eta giza eskubideen aldeko mezu positiboak sortu eta komunikatzea.	Aldundiak edo udalek bultzatu dezaketen kanpaina baterako edukiak, jarduerak... sortzea eta kanpaina parte hartzea.



Lehenengo ikasturtea

Iraila

Aurkezpena

Aurkezpen saioa ikastetxeetako ordezkariekin.

Urria - Azaroa

Aztertu

1.1 Barruan edo kanpoan?

1.2 Etiketa festa.

1.3 Hitzak baino gehiago.

1.4 Tximeleten zirkua.

Abendua - Urtarrila

Sentitu

2.1 Bizitzak asmatzen.

3.2 Bizipenak ezagutzen.

3.3 Aurrez aurre.

Otsaila - Martxoa

Konprometitu

3.1 Konpromisoa hartu.

3.2 Aniztasuna ikastetxean eta herrian.

Apirila

Ebaluazioa

4.1 Ikasleen eta irakasleen ebaluazioa.

4.2 Programaren ebaluazio orokorra.

*

Saio guztiak ikastetxe bakoitzeko irakasleek garatuko dituzte, baina prozesu osoan zehar prozesua bideratzen lagunduko duen erreferentziazko dinamizatzailearen laguntza izango dute.

Erreferentziazko dinamizatzailea arduratuko da testigantzak ikastetxera eramateaz.

Ikastetxe bakoitzaren erritmoa eta denborak desberdinak direnez, programa malgutasunez garatzeko aukera emango zaio ikastetxeari, betiere proiektuaren dinamizatzailearekin aldeztuz eta koordinatuz.



1 Aztertu

Sentipenetatik hasiko dugu proiektuaren garapena. Ikasleei ez diegu oraindik proiektuaren berri emango. Hainbat dinamika egingo ditugu gelan, ikasleek dinamikak zertarako diren jakingo ez duten arren. Dinamikaren helburua aldeaz aurretik ezaguna balute, beren bizipenak baldintzatuta geratuko lirateke.



1.1

Barruan edo kanpoan?

Helburua:

Baztertuaren eta baztertzaillearen tokian jartzea eta sentitutakoa adieraztea.

Iraupena:

40 minutu

00:00 Dinamika

Sei boluntario eskatuko dira dinamikan parte hartzeko eta gelatik kanpora ateratzeko esango diegu. Gelan geratzen direnen arteko hamar ikaslek borobil bat osatuko dute, besoetatik eutsiz eta kanpora begira jarriz. Beste ikasleak behatzaileak izango dira eta partaideen jokabideetan erreparatu beharko dute. Dinamikaren ondoren egingo den solasaldian, dinamikan ikusi dutena komentatuko dute.

Borobilak koadrila edo gelako taldea irudikatzen du eta bertara sartzen uztea edo ez borobila osatzen duten kideek erabakiko dute, aldez aurretik ezarritako kontsigna baten arabera.

Adibidez, honako hau izan daiteke kontsigna: "Kanpotik datorren pertsonaren izena bokalez hasten bada, sartzen utziko diogu, kontsonantez hasten bada, ez".

Beste kontsignaren bat ere izan daiteke. Hautatzen den kontsignak, kalera atera diren ikasleetako bi edo hiru gutxienez borobiletik kanpo utzi beharko lituzke. Kanpotik datozen boluntarioek ez dakite kontsignarik dagoenik. Kontsigna erabakita dugunean, kanporatua izan den ikasleetako bat gelara sarraraziko dugu eta irakasleak hau esango dio: "ikastetxera iritsi berria zara eta gelakideek zu onartzea nahi duzu. Taldean sartzen saiatu behar duzu". Hasieran, taldeak ez dio borobilean sartzen utziko baina kontsignaren arabera, bere izena bokalez hasten bada, 20-30 segundo pasa ondoren sartzen utziko dio, kontsonantez hasten bada, berriz, ez.

Borobilera sartzea lortu badu, borobilaren barruan geratuko da dinamika amaitu arte. 45 segundo ondoren taldean sartzea lortu ez badu, irakasleak esango dio taldeak ez duela onartu eta borobiletik kanpo geratuko da dinamika amaitu arte. Ez zaio taldeak onartu ez izanaren arrazoirik emango. Ez zaio kontsigna bat zegoela esango. Ondoren berdina egingo dugu beste boluntarioekin banaka sarraraziz.

00:20 Solasaldia

Dinamikaren ondoren, solasaldia egingo dugu. Boluntario batzuk taldera sartzea lortuko zuten eta beste batzuk kanpoan geratuko ziren. Honako galdera hauek lagungarriak izan daitezke solasaldirako:

- Nola sentitu zarete taldetik kanpo geratu zaretenak? Eta sartzea lortu duzuenak?
- Eta zirkulua osatzen zenutenak, nola bizi izan duzue batzuei utzi izana eta besteei ez?
- Horrelako zerbait bizi izan duzue noizbait? Utzi izan zaituztete kanpoan?
- Nola sentitu zineten?
- Horrelako egoerarik ikusi izan duzue ikastetxean edo lagunaren artean?
- Zein egoeratan? Zer egiten duzue egoera horietan? Zer egin zenezakete?



1.2 Etiketa festa

Helburua:

jartzen ditugun eta jartzen dizkiguten etiketen kontzientzia hartu eta etiketa horien ondorioez jabetzea.

Iraupena:

45 minutu

00:00 Dinamika

Estereotipoak eta aurreiritziak landuko dira dinamika honen bidez. Askotan, pertsonak gehiegi ezagutu gabe, "etiketatu" egiten ditugu eta horren arabera jokatzeko dugu haiekin. Hori da egingo duguna. Irakasleak etiketa batzuk prestatuak izango ditu post-it batzuetan eta ikasle bakoitzari bat jarriko dio kopetan.

Norberak ezingo du bere etiketa ikusi baina besteena ikusiko du eta etiketa horietan jartzen duenaren arabera erlazionatu beharko da besteekin. Guztiek etiketa jarria dutenean, irakasleak esango die 15 minutu izango dituztela elkarren artean hitz egiteko eta astebururako plana antolatzeko (bikoteka, taldeka...). Plana egiteko garaian beste etiketak kontuan izan beharko dituzte, besteekin, ikusten duten etiketaren arabera jokatu beharko dute.



Etiketa posible batzuk (irakasleak taldearentzako egokienak izan daitezkeen etiketak erabiliko ditu. Berriak ere sortu ditzake).

Ijitoa, marokoarra, kirolaria, alperra, lagunkoia, gezurtia, tranposoa, ikasle ona, potoloa, liderra, alai, pazientziaduna, erraz haserretzen da, baikorra, bakartia, bolibiarra, zikina, mozkorra, pesimista, ederra, diruduna, lapurra, homosexuala, elbarria, aspergarria, negartia, jatorra, tontoa, umoretsua...

00:15 Solasaldia

Hamabost minutuak pasa ondoren, etiketa kopetatik kendu gabe, borobilean eseriko gara eta gertatutakoaz eta sentitutakoaz solas egingo dugu. Lehendabizi, dinamikari loturiko galderak izango dira eta ondoren, benetako egoeraz hitz egitera eramango gaituzten galderak. Hona hemen lagungarriak izan daitezkeen galdera batzuk:

- Nolako planak atera diren ikusiko dugu, eta batez ere, taldeak norekin osatu dituzten.
- Zergatik egin dituzue talde horiek? Zeren arabera erabaki duzue norekin elkartu?
- Norbaiten proposamenari ezezkoa eman diozue? Norbaiti ezetz esan diote? Zergatik? Nola sentitu zarete?
- Norbaiti kostatu zaio plana egitea? Norbait geratu da planik lotu gabe?
- Besteek izan duten jokamoldearen arabera, badakizue zein etiketa jarri zaizuen?
- Dinamikan agertu ez diren etiketa gehiago ezagutzen dituzue?
- Egunerokoan, zergatik jartzen zaizkie etiketak pertsonari? Zeren arabera jartzen dira? Betirako dira?
- Eta guk, etiketak jartzen ditugu? Edo jarri dizkigute? Nola sentitu gara?
- Zein jarrera beharko genuke etiketa horien aurrean? Nola aldatu / kendu daitezke?
- Estereotipoak eta aurreiritziak, zer dira? Pertsona ondo deskribatzen dute? Zein jarrera bultzatzen dute beraiekiko? Pertsonaren bizitza markatu dezakete? Nola?

40:00 Hitz gakoak atera

Bi dinamikak egin ondoren, landutako kontzeptu nagusiak edo hitz gakoak zeintzuk izan diren aipatu beharko dituzte ikasleek.

Adibidez: bazterketa, enpatia, estereotipoa, aurreiritzia... Komentatzen dituzten hitz guztiak orri handi batean apuntatu eta hurrengo saiorako gordeko ditugu.

1.3

Hitzak baino gehiago

Helburua:

Diskriminazioa ekidin eta aniztasuna balioan jartzen duten hitzak eta kontzeptuak lantzea.

Iraupena:

55 minutu

00:00 Aniztasuna

Taldeka jarriko ditugu ikasleak, eta aniztasunaren zein irudi duten ikusiko dugu hasteko. "Aniztasun" hitzarekin zer ulertzen duten galdetuko diegu.

00:10 Gurutzegrama


Gaiarekin lotura duten hitz batzuekin, gurutzegrama osatu beharko dute ikasleek. Dugun denboraren arabera bi eratara egin dezakegu.

1.

I **eranskin**eko gurutzegrama hutsa eta hitz guztiak eman ikasleei eta gurutzegrama osatu dezatela. Ikasle bakoitzari gurutzegrama huts bat emango diegu.

2.

Ikasleei **I. eranskina** eman aurretik, irakasleak hitzen definizioak eman ditzake ikasleek hitzak asmatu ditzaten. Behin hitz guztiak asmatuta, gurutzegrama hutsa emango diegu bakarka osatu dezaten.



Gurutzegrama amaitu ondoren, hitz hauei buruz hitz egingo dugu. Galdera hauek lagungarri izan daitezke:

- Nolako garrantzia dute hitz hauek gure egunerokoan? Handia? Txikia?
- Zein egoeretan agertzen dira edo zein egoerekin lotzen ditugu? Adibide zehatzak eskatuko dizkiegu.
- Aniztasunarekin loturarik badute?
- Gure ikastetxean, auzoan, herrian, aniztasuna ikusten dugu?

00:30 Aniztasunaren aldeko mezua

Ondoren, talde bakoitzean aniztasunaren aldeko mezu bat idazteko esango diegu. Gurutzegramako ahalik eta hitz gehien erabiliz, definizio edo mezu labur bat osatu beharko dute hitz guztien arteko lotura bilatuz. Malgutasunez jokatu beharko dugu hitzen erabilerarekin. Garrantzitsuena paragrafoak zentzua izatea da.

Adibide bat irakaslearentzat: “Ezezaguna” eta “desberdina” den orok “beldurra” sortu dezake. Horien aurrean “aurreiritziekin” eta “estereotipoekin” jokatzeko dugu askotan, “diskriminatu” egiten dugu eta “bazterketa” egoerak sortu ditzakegu. Besteekin “enpatizatuz”, zintzotasunez jokatzeko eta “konfiantzaz gerturatuz” bestea “ezagutzeko aukera” izango dugu eta “aniztasuna aberatsa” dela sentitu dezakegu.

Talde guztiek esaldia osatu dutenean, esaldiak irakurri eta komentatuko dituzte. Aurreko saioan orrian apuntatu genituen hitzak ekarriko ditugu gogora eta berriak atera badira horiek ere orrian apuntatuko ditugu.

00:50 Bideo laburra

Saioa bukatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritzak plazaratutako “Ikas dezagun elkarbizitzen, ikas dezagun bizitzen” bideo laburra ikusiko dugu. Saioan zehar ikasleek aipatu dituzten aniztasun adibideak eta bideoan agertutakoak alderatuko ditugu.

Irakaslearentzat material gehigarria

Aniztasunaz hitz egiten dugunean, pertsonan, giza talde egoeran eta errealitate askotan jarri dezakegu fokua. Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritzak garatutako planean honako hauek lehenetsi ditu, eta Aniztasunetik Eraikiz programan ere hauek landuko dira gehienbat:

- Jatorri aniztasuna: etorkinak
- Dibertsitate funtzionala: fisikoa eta adimenekoa
- Genero eta sexu-aniztasuna: LGTBQ+
- Aniztasun etnikoa: ijitoak

II. eranskinean, aniztasunaz eta giza eskubideez hitz egiten duten hainbat paragrafo dituzu. Agian, AZTERTU deitutako atal honetan edo hurrengoetan solasaldiak osatzeko lagungarri izan ditzakezu. Datorren ikasturtean giza eskubideetan gehiago sakonduko dugu eta orduan ere informazioa osatzeko aukera izango dugu.

Dena den, II. eranskinaren amaieran aipatzen diren “askotariko diskriminazioei” uneren batean aipamena egitea eta prozesuan zehar presente izatea garrantzitsua da.

1.4 Tximeleten zirkua

Helburua:

Pertsona bakoitzaren balioaz jabetzea.

Iraupena:

55 minutu

00:00

Tximeletaren zirkua laburmetraia

Aniztasunaren eta eskubideen inguruan sakontzeko “El circo de las mariposas”, 20 minutuko pelikula laburra ikusiko dugu.

Pelikula ikusten dugun bitartean, entzuten ditugun esaldi esanguratsuak idatziko ditugu. Esaldi horiek pelikularen ondoren komentatuko ditugu.

00:30 Solasaldia

Bi zirku desberdin ikusi ditugu. Zirku bakoitzean, pertsonak era desberdinean ikusten, baloratzen eta tratatzen dira eta, horren ondorioz, pertsona bakoitzak bere burua ere era desberdinean sentitzen eta baloratzen du.

Pelikula ikusten genuen bitartean apuntatu ditugun esaldiak komentatuko ditugu. Zergatik apuntatu ditugu eta zer adierazi nahi dute esaldi horiek?

Solasaldirako lagungarriak izan daitezkeen beste galdera batzuk:

- Nolakoa da zuzendariaren jarrera zirku bakoitzean? Zeri ematen diote garrantzia?
- Eta nolako jarrera du publikoak zirku batean eta bestean?
- Zein rol dute eta nola sentitzen dira artistak zirku bakoitzean?
- Zein balore dira nagusi zirku bakoitzean?
- Nola sentitzen du Willek bere burua hasieran eta bukaeran? Nolakoa da Willek bizi duen eraldaketa? Zerk edo nork sortzen du eraldaketa hori?
- Zergatik ez diote laguntzen errekan?
- Zer adierazten du bideo amaierako umearen besarkadak?
- Eta guk, zein zirkutan egon nahi genuke? Zergatik?
- Horrelako egoera batean egongo bazinete, zer eskertuko zenukete?

2

Sentitu

Ikusi dugun pelikula laburra, “Tximeleten zirkua”, fikziozkoa da, baina gure inguruan ere baditugu diskriminazio egoerak bizi dituzten pertsonak. Horiek ezagutzeko aukera izango dugu hurrengo saioetan. Hiru pausotan ezagutuko ditugu: argazkian, bideoan eta aurrez aurre gelan.





2.1 Bizitzak asmatzen

Helburua:

Barneratuak izan ditzakegun estereotipoak azaleratzea.

Iraupena:

40 minutu

00:00 Argazki bat

Lau talde egingo ditugu eta talde bakoitzari III. eranskineko argazkiak emango dizkiogu. Argazkiaren azpian diren datuetatik abiatuz, pertsona bakoitzaren bizitza nolakoa den imajinatu beharko dugu. Galdera hauek lagungarri izan daitezke:

Nor da argazkiko pertsona? Ikasketak ditu? Lan egiten du? Zer du gogoko? Nolakoa da bere egun bat?
Diskriminazio egoerak bizi ditu? Zeintzuk izan daitezke? Zer egin dezakegu diskriminazio egoera horien aurrean?

00:20 Solasaldia

Talde bakoitzean hitz egindakoa kontatuko diegu gelakideei.



2.2 Bizipenak ezagutzen

Helburua:

Diskriminazioa jasaten duten pertsonetako enpatia garatzea.

Iraupena:

60 minutu

00:00 Ahotsa jarritz

“Aniztasunetik eraikiz” proposamenean parte hartzen duten pertsonen testigantzak entzungo ditugu bideoetan. Testigantzen Bideoak ikusiko ditugu.

00:45 Solasaldia

Pertsona bakoitzaren argazkiaren aurrean imajinatu dugun bizitza eta bideoan entzundakoa alderatuko ditugu. Zerk eman digu atentzia? Zer ez genuen imajinatuko?

2.3 Aurrez aurre

Helburua:


Estereotipoak eta aurreiritziak gainditzeko pertsonak ezagutzearen garrantziaz ohartzea.

Iraupena:

60 minutu

Bi lagun bizi izango dugu gelan eta haien zuzeneko testigantza entzungo dugu. Lehenengo saioan beren bizitzak asmatu genituen, ondoren, bideo batez hobeto ezagutu ditugu. Orain, aurrean ditugu. Pertsona horien bizipenak eta sentimenduak errespetuz entzungo ditugu eta ondoren haiekin solasaldia izango dugu.

3 Konprometitu





3.1 Konpromisoa hartu

Helburua:

Aniztasunaren alde eta diskriminazioaren aurka lan egiteko dugun arduraz jabetzea.

Iraupena:

30 minutu

Testigantzak entzun ondoren, haiek jasandako diskriminazio egoerak ezagutu eta sentitu ditugu. Diskriminazio ezarekin konpromiso bat hartzeko garaia da eta horretarako **IV. eranskinean** dagoen idatzia irakurriko dugu eta puntu bakoitzak zer esan nahi duen komentatuko dugu guztion artean.

Ondoren, gure konpromisoa adierazteko, orria sinatuko dugu. Gelakide guztiek konpromiso orri bakar batean sinatu dezakegu.

3.2 Aniztasuna ikastetxean eta herrian

Helburua:

Ikastetxean eta herrian dugun aniztasunaz jabetzea eta ezagutzera ematea.

Iraupena:

180 minutu (erabakitzen dugunaren arabera gehiago edo gutxiago izan daiteke)

3.2.1 Planifikazioa

Taldeka jarriko gara eta talde bakoitzean, ikastetxeko eta herriko aniztasuna nola islatuko dugun pentsatuko dugu. Hiru galdera nagusi erantzun beharko ditugu:

Zer kontatuko dugu? Nola kontatuko dugu? Nori kontatuko diogu?

1

Zer kontatuko dugu: gure ikastetxean eta herrian aniztasuna dagoela esaten dugunean, zertaz ari garen adieraziko dugu aniztasun hori nork osatzen dugun zehaztuz.

2

Nola kontatuko dugu: errealitate hori islatzeko edukiak sortu beharko ditugu.

3

Nori kontatuko diogu: beste kurtsoetako ikasleei, gurasoei bileraren batean, herritarrei ezagutzera eman...

Talde bakoitzean atera diren proposamenak beste taldeekin partekatuko ditugu eta guztion artean adostasun batera iritsiko gara. Egin beharreko lana egiteko lantaldeak sortuko ditugu eta ardurak banatuko ditugu. Lantalde batzuk edukiak sortzeaz arduratu daitezke, besteak hedapenaz, batzuek begirada ikastetxean jarri dezakete, besteak herrian...

3.2.2 Edukiak sortu


Erabakitakoaren arabera, errealitate anitz hori kontatzeko edukiak sortuko ditugu lantalde bakoitzean: elkarrizketak grabatu ditzakegu, datuak jaso eta panelak egin ditzakegu, bideo bat osatu dezakegu, mural bat egin...

3.2.3 Hedapena

Aniztasunaren inguruan ikasi duguna eta gure ikastetxean eta herrian aniztasun hori dugula ezagutzera eman behar dugu. Gure publikoa, ikastetxeko beste ikasleak izan daitezke, gurasoei kontatu diezaiekegu guraso bilera batean edo egin dugun lana herritarrei ezagutzera eman diezaiekegu.

Hedapen lana egiteko, sortu ditugun edukiak erabiliko ditugu. Horretarako, erakusketa bat antolatu dezakegu, bildu ditugun datuekin eta bideoarekin aurkezpen publiko bat egin, sare sozialetan zabaldu, herriko komunikabidean zerbait argitaratu edo elkarrizketa bat lotu...

I. Eranskina



- | | | |
|--------------|-----------------|------------|
| Aberatsa | Beldurra | Ezagutu |
| Aniztasuna | Desberdintasuna | Ezezaguna |
| Aukera | Diskriminazioa | Gerturatu |
| Aurreiritzia | Enpatizatzea | Konfiantza |
| Bazterketa | Estereotipoa | |

II. Eranskina

Migratzaileen eskubideak

Kalkulatzen da 244 milioi pertsona bizi direla beren jatorrizko herrialdetik kanpo. Hainbat arrazoiengatik migratu dute, adibidez, babes bila edo aukera baten bila. Migrazioa esperientzia positiboa eta ahalduntzeko modukoa izan daiteke, baina gero eta nabarmenagoa da migrazioa kudeatzeko moduak, sarritan, ez daudela eskubideetan oinarrituta.

Migratzaileak, bereziki egoera irregularrean daudenak, beren eskubideak erabat gauzatzeko aukerarik gabe bizi dira; diskriminazioaren eta bazterketaren aurrean egoera ahulean egonda, gizartean, migratzailea izateagatik aurreiritziz beteriko jokabideak eta gaitzespen jokabideak jasateko arriskua dute.

Jatorriaren aniztasunetik eratorritako ezberdintasunak oinarri hartzen baditugu, ezin dugu ahaztu zenbait esparrutan (lana, etxebizitzak eskuratzea, eta abar) atzerritarrek diskriminazioari aurre egin behar diotela. Langabezia, esaterako, ez da homogenea, eta langabezia poltsa oso esanguratsuak daude pertsonen adinaren eta jatorriaren arabera, egungo soldatetan (generoaren eta lanbide nahiz ekintzen arabera) dagoen arrakala esanguratsua ahaztu gabe. Krisi garaian areagotu egin da. Gipuzkoan bizi diren atzerritarren langabezia tasak batez besteko osoaren tasak baino nabarmen handiagoak dira.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak

Datuek erakusten digute gizarte bazterkeriaren egoeraren eragina nabarmen handiagoa dela desgaitasun fisikoa, psikikoa edo adimen urritasuna duten pertsonen artean (herritar guztiekin alderatuta). Pertsona horiek, oraindik ere, diskriminazioa jasaten dute hezkuntza eta enplegua lortzeko aukerei dagokionez, gizartean parte hartzeari dagokionez, nahiz eguneroko bizitza era independentean garatzeko aukerari dagokionez, eta horrenbestez, desgaitasunen edo urritasunen bat duten pertsonak baztertzeko edo gizartean parte hartzeko eta eskubideak erabat gauzatzeko esparruetatik urruntzeko prozesuetan, desgaitasuna da joera horiekin amaitzeko elementua.



II. Eranskina

LGBTIQ+ pertsonen eskubideak

Orientazio homosexuala eta identitate transexuala edo transgeneroa duten pertsonak, edota bisexualak nahiz intersexualak, diskriminazioaren, estigmatizazioaren eta bazterketaren biktimak izan dira. Frogatu da fobia eta gaitzespena dagoela (homofobia deritzoguna) eta, aurrerapen handiak egin arren, oraindik ez direla erabat gauzatu pertsonen identitate sexuala eta afektiboa edo genero identitatea askatasunez eta berdintasunez bizitzeko beharrezkoak diren baldintzak.

Gazteen artean, eta sexu orientazioa edo genero identitatea tarteko, aniztasunaren aurrean duten jarrera aztertzen badugu, EAEn eta Gipuzkoan ikus dezakegu gero eta onarpen indize handiagoa dagoela ikasgeletan ikaskide transexual, bisexual, lesbiana eta gayen artean. Baina, era berean, zenbait jokabide homofobo ere ikusten dira; gazteen % 27k beren burua halakotzat jotzen du. Horrenbestez, arauzkoak ez diren orientazioei eta sexu identitateei dagozkien ideia hierarkikoen eta gutxiespena erakusten duten ideien transmisioak benetakoa izaten jarraitzen du sexu bereko eta ezberdineko pertsonen arteko adierazpenen onarpen mailari dagokionez.

Gogora ekar dezakegu transgeneroek eta transexualek talde bereziki ahula osatzen dutela: gainerakoekin alderatuta, desabantaila egoeran daude gizartean. Pertsonentzat funtsezkoak diren bizitzako etapa batzuetan indartsuagoa da, adibidez, nerabezaroan eta gaztaroan. Transexual edo transgenero guztientzat, neurri handiagoan edo txikiagoan, eta denbora luzeagoan edo laburragoan, transgeneroa edo transexuala izatea beren bizitzan bazterkeria izateko faktorea da.

Gutxiengo etnikoen eta erlijiosoaren eskubideak

Euskadiko ijitoen komunitateak aldarrikatzen du gizartean bizi diren gainerako pertsonen errespetu eta onarpen maila berdina izan behar dutela. Ijitoen komunitateak ere haien giza eskubideak gauzatzeko eta baliatzeko hainbat eragozpen dituzte esparru askotan: azken urteetan, arlo batzuetan (hezkuntza jasotzeko eskubidea eta beste batzuk) hobekuntzak nabaritzen diren arren, ezin dugu ahaztu haien garapen pertsonala mugatzen duten oztopoak daudela. Esate baterako, esanguratsua da ijitoen komunitatekoak diren hiru etxeetatik ia bik adierazten dutela oinarrizko beharrianak betetzeko baliabide ekonomikoak falta zaizkiela, nahiz eta

II. Eranskina

pobrezia egoera larrienak etxe guztien % 42,9an eragiten duen. Ukaezina da euskal gizartean badagoela erlijio aniztasuna. Erlijio aniztasuna gero eta handiagoa da, migrazio fluxuen ondorioz nahiz erlijio askatasunaren eskubideaz baliatzearen ondorioz. Horregatik, beharrezkoak dira pertsona guztientzako askatasun bera bermatzen duten politikak. Aipatu behar dugu, batetik, oro har ezjakintasuna dagoela Euskal Herriko errealitate sozio-erlijiosoari buruz, eta, bestetik, euskal gizarteak erlijio aniztasunari buruz duen hautemateak eta iritziak eragina duela publikoki kudeatzeko moduan. Orokorrean, zailtasunak daude kultur aniztasuna gure gizartearen ezaugarri gisa ulertzeko.

Askotariko diskriminazioak

Ezin dugu alde batera utzi, gainera, gizarte ororen barruan, talde espezifiko batzuek (adibidez emakumeek, neska-mutikoen eta adinekoek) zailtasun berezietan eta hainbat motatako diskriminazioei aurre egin behar dietela beren berariazko ezaugarriengatik, egoera bereziengatik edo identitatearengatik.

Emakumeak ahalduz bidean egon ohi diren oztopoak, harreman sozialik, ekonomikorik, sarerik edo laguntza talderik ez izateak, eta talde jakin batzuetako emakumeen artean erreferentziazko eredu gutxi izateak, nabarmen eragiten dute emakumeek eta neskatiliek giza eskubideak baliatzeko aukeran.


Hori dela eta, fenomeno horretan arreta jarri behar da askotariko diskriminazio horiei aurre egin diezaioketen pertsonen egoera erabat ulertzeko, eta emakumeen eta gazteen jabeakuntza sustatzeko, beren komunitateetan aldaketan eragile gisa jardun dezaten.

III. Eranskina

Nor da?



Juncal Cepeda (Irun). Gurpildun aulki baten beharra izan du jaio zenetik



Eneko autismoa du. Amak Aintzane izena du eta biak donostiarrak dira.



Katia Reimberg (Brasil) Donostian bizi da.




Meodune Seye (Senegal) Debagoienan bizi da azken urteotan.



Isabel Jimenez (Donostia) emakume ljitoa da.



Tarana Karim (Azerbaijan) musulmana da eta urte asko daramatza Tolosaldean bizitzen.



German Urteaga (Beasain). Mutil transgeneroa.



Ines Miguelañez (Errenteria). Seme gay eta alaba heterosexualaren ama.

IV. Eranskina

Aniztasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko konpromisoa

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aldarrikatu ziren 1948. urtean. Berdintasuna eta diskriminazio eza giza eskubideen nazioarteko arauen oinarriko printzipioak dira. Pertsona orok du, bereizketarik egin gabe, giza eskubide guztiak baliatzeko eskubidea. Horren barruan sartuko dira legearen aurrean tratatu berdina jasotzeko eskubidea eta hainbat arazoirengatik diskriminazioaren aurka babestua izateko eskubidea.

Baina oraindik ere gure inguruko hainbat pertsonak diskriminazio egoerak bizi dituzte, hau da, tratatu ezberdina eta kaltegarria ematen zaie beste batzuekin alderatuta, ezaugarri berezi bat edo bat baino gehiago dituztelako, edota talde jakin batekoak direlako aintzat hartuta.

Ondorio gisa, pertsona batzuek ez dituzte gainontzekoen eskubide eta aukera berberak. Hala, diskriminazioak eragotzi egiten du pertsonen erabateko ahalmena garatzea, gizarte bazterketa eragiten du, eta oinarriko eskubideak urratzea dakar.

Hori dela eta, egoera bidegabe horien aurrean nik honako konpromisoak hartzen ditut:

- Errespetua izango diot pertsona orori, nik errespetatua izan nahi dudan bezala.
- Ez naiz eroriko estereotipoetan eta ez dut aurreiritziekin jokatu. Eta horiek nigan aurkitzen badituzte, alde batera uzteko lana egingo dut.
- Ez dut inor epaituko alde aurretik ezagutzen ez badut.
- Desberdin sentitzen ditudan pertsonengana hurbiltzeko bidea egingo dut, haiek ezagutu eta nire inguruan lekua eginez.
- Pertsonak bere osotasunean onartuko ditut, bere gaitasun eta desgaitasun guztiekin, nire gaitasunak eta desgaitasunak ere onartuz.
- Pertsona batek diskriminazio egoera bat bizi badu, bere tokian jartzeko saiakera egingo dut, berak sentitzen duena sentituz. Enpatia garatuko dut.
- Giza eskubideen urraketan aurrean ez naiz isilik geratuko. Diskriminazio egoeren aurrean konponbideak proposatuko ditut.
- Aniztasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko lana egingo dut gizartean guztiok beharrezkoak garelako.

Eta hori horrela izan dadin, adierazpen hau sinatzen dut

.....n, 20.....koren(e)an



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza

www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak